

Bego Vicario

ZINEMAN ADITUA

## Gizonezkoen zinema

**E**z dakit zergatik ez duten gurekin, emakumezkoekin, haien sekretua partitu nahi, lastima. Laster argitaratuko da Fatima Arranz soziologoaren lana. Bertan Espainiako Estatuko zineman gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten paperak iker-tu ditu bai kamera aurrean zein atzean. Beste ondorio gordinen artean, 2000 eta 2006 urteen artean emakumeek zuzendutako filmak %7,3a izan da soilik. Beste era batean esanda, gizonezkoek %92,7a zuzendu dute.

Arranzen lanari begiratu bat eman eta aktore lanetan ere gizonezkoak izan dira gehienak urte guzti horietan. Pentsatzekoa da hala ere, urteen buruan hobekuntzaren bat sumatu beharko dela, ezta? Bada, ez, zazpi urte horien datuekin egindako eskemei erreparatu eta datu aldaketa izpirik bat ere ez, denbora aurrera egin ahala. Orduan, aurten estreinatutako filmen artean zenbat emakumezko diren bilatu, eta 46tik bakarrik 6 dira talde honetan sartu litezkeenak. Nire iritziz gizonezkoek egiten duten filmen kopurua handiegia da. Beste arrazoien artean, bertan islatzen diren andreak ez baitira, orokorrean, gu garen bezalakoak, ez baitute erabaki garrantzitsurik hartzen eta ez dutelako gatazkak ebazteko gaitasunik erakusten, nerabe eternalak balira bezala.



INIGO AZKONA

Esan diezaguten behingoz gizonek duten sekretua etxetik kanpoko lanak eta barrukoak aldi berean aurrera eramateko. Nola liteke hainbeste estres sortzen duten bileretatik etxeratzea eta lotarako ordura arte egin beharrekoak betetzea? Oso zaila da haurrek eskolan duten ordutegia lanekoarekin parekatzea, baina lortu ere lortzen dute, eta gainera dendatik pasatzen dira jatekoak erostera, gosez ez baita inoiz zinema zuzendaririk hil, nik dakidala behintzat. Oso gogorra egin behar zaie jaietara joan diren seme-alaba adoleszenteen bila joatea ordu txikitari eta gero goizetik altxatu beharra filmatzera joateko. Beste batzuen kasuan bakarrik bizitzen aukeratu behar izan dutela pentsatzen dut, eta arteari bizitza osoa eskaini. Gizon jakintsu handinahi askok esan duenaren arabera, emakumezkoek ez dugu zertan sormenaren ziztada sentitu, haurrak izatearekin soilik betetzen eta asetzen baitugu grina hori. Beraz, alderantziz pentsatuta, gizon gaixoak dira erditzearen suzedanceoa besterik ez den sormenaz arduratu behar direnak, garrak eta txinpartak bertan jarriko baitituzte.

Beti galdetzen digute ea emakumezkoen zinema baden. Erantzuna gero eta garbiago da: ezin izan. Ale nahikorik ez bada, nola izan talderik? Gauza bakarra da seguru, gizonen zinema bai, bada. ■

« Gizon handinahi askoren arabera, emakumezkoek ez dugu zertan sormenaren ziztada sentitu, haurrak izatearekin soilik asetzen baitugu grina hori »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Idazle idazle-edo denak koadernotxo bat eramaten du beti alboan, jakingarri iruditzen zaizkion kontuak bertan apuntatzeko, geroko esperantzan.

Aurtengo udan ere halaxe ibili naiz ni. Besteak beste, egunean bizpahiru egunkari irakurri-edo ditut, eta baita aspaldian txanda-zain neuzkan dozena erdi bat liburu ere. Horrez gain, film bat edo beste ikusi ditut, eta bi egonalditxo egin ditut etxetik kanpora.

Uda amaitzear, hainbat koadernotan idatzitako apunte horiei begira aritu naiz, aurrena zeri helduko. Ni neu harritu naiz egin dudana aukerarekin.

Gure etxepeko tabernan hartutako apuntea da: lau mutil gazte ari dira musean; gazteetariko bat, musika

## Ez dago musik

entzuten ez duten musikaren erritmoari jarraituz mugitzen da.

Gogorra egin zitzaidan eszena. Batetik, gazteak kideekiko erakusten zuen errespeturik ezagatik; bestetik, gure politikarien jarduna ekarri zidalako gogora: elkarrekin hitz egiten ari diren itxura eginagatik bakoitzak bere musikari erreparatzen baitio soilik, baten *bor-dagoari* besteak *enbido* gehiago erantzuten diolarik.

Uda honetan bi gazte hil dira trenak harrapatuta, trenbidea zeharkatzen ari zirela. Kaskoetatik musika entzuten ari omen ziren biak, horrexegatik ez omen zuten abisua entzun. ■